

# ESKOLA LURRALDEA

**deialdiaren oinarriak, heziketa artistikorako hezkuntza berrikuntza proiektu bat**

2018 / 2019 ikasturtea

Huarte



# Sarrera

**Eskola Lurraldea** deialdiak hezkuntza-proiektu bat lagundu nahi du eskolako mugez haratago jotzeko, eskolak ingurune hurbilarekin duen harremana birpentsatuta, arteetatik eta pentsamendu garaikidetik hurbil dauden estrategiak edo proposamenak erabiliz.

Bi borondatek bat egitearen ondorioz sortu da deialdia. Batetik, arte arloko irakaskuntza berritzeko proposamenak tresnaz hornitu nahi ditugu Nafarroan, bai tresna kontzeptualez, bai materialez, bai giza tresnaz. Eta bestetik, Uharteko Arte Garaikideko Zentroak Nafarroako ikastetxeekin batera ibilbide luzeko proiektuak diseinatu nahi ditu.

Deialdiaren oinarrian sare-lana dago, prozesu parte-hartzaileak oinarri harturik, ezagutzak eraikitze aldera eta, ondorioz, kultura sortze aldera.

## LAGUNTZA

Uharte Zentroak giza baliabideak jarriko ditu proiektu aukeratuaren eskura, bai eta baliabide teknikoak eta materialak ere, proiektu hori garatze aldera. Baliabideen balioa gehienez 3.000€ izanen da.

Laguntza hori jasota ere, proiektu berberak beste laguntza batzuk ere jaso ditzake.

## HELBURU orokorrak

- Hezkuntza-proiektuak egitea, eskolaren eta ingurunearen arteko harremana birplanteatzeko
- Eskolaren berezko proposamenei edo erronkei sarean aurre egitea.
- Artea ekoiztu eta sortzeko estrategiak hezkuntza-prozesuetan erabiltzea.
- Irakaskuntza-lana kultura ekoizteko proposamenetan kokatzea.
- Ikasleak talde sorkuntzako prozesuetan engaiatzea.

## NORENTZAT

Ikastetxeotako irakasleentzat:

- Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetakoentzat.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetakoentzat (hau da, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoa).

Aipatutako ikastetxe horietako batean jardunean ari diren irakasleek izanen dute deialdian parte hartzeko aukera, betiere jardunean ari badira eskaera aurkeztean eta proiektua gauzatzeko denboraldian.

Irakasleek taldean parte hartuko dute, eta gutxienez hiru irakaslek osatuko dute.

Taldeak ikastetxe bereko nahiz ikastetxe ezberdinetako irakasleek osatzen ahalko dituzte.

## HAUTAGAITZEN EPEAK

Proiektua 2018ko urritik, 2019ko maiatzera garatu beharko da.

2018ko maiatzaren 8a eta ekainaren 15a bitartean:

Proiektuaren koordinatzaileak galdetegiko eremu guztiak bete beharko ditu.
Galdetegia Uharte Zentroko webgunean dago, esteka honetan **www.centrohuarte.es/?form=territorioescuela_eskolalurraldea**

Galdetegian bi agiri aurkeztea eskatzen da:

- **Ikastetxeko zuzendaritzaren txostena. (I. Eranskina)**
- **Proiektuaren laburpena (**gehienez, 7 folio), honakoa zehaztuta: hezkuntza maila, helburuak, metodologia eta ebaluazioa, irakasle eta ikasgela kopurua, zer alor edo departamentu ari diren, eta era berean, ikastetxez kanpoko eragileak, halakorik badago.

**2018ko ekainak 27**
Proiektu irabazlea Uharte Zentroaren webgunean argitaratuko da eta proiektu horren koordinatzailearekin jarriko gara harremanetan.

**Ekainaren 17tik, irailaren 28ra**
Lehen bilera proiektuaz arduratzen den irakasle taldearekin.

**2019ko iraila**
Proiektuaren koordinatzaileak azken txostena aurkeztuko du.

## PROIEKTUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

- Proiektuaren egokitzapena deialdian proposatu diren jarduketa ildoetara (gehienez, 10 puntu).
- Ikaskuntza-prozesu aktiboen sustapena: ikasleak dira ardatz, proiektuak testuingurua kontuan izanda eginda dago eta ekarpena eragiten dio komunitateari. Egiazko bizi-ikaskuntza proposatzen du, testuingurura egokituta, eta gizarterako garrantzitsua. (Gehienez, 5 puntu).
- Proiektuaren egokitasuna ikasleen gan funtsezko gaitasunak garatzeko (bizitzarako ikaskuntza). (Gehienez, 5 puntu).
- Ikasleek eta irakasle taldeek proiektuan parte hartzea eta engaiatzea. Talde eta etapa kopurua, irakasleen talde diziplina anitzak,… (gehienez, 10 puntu).
- Hezkuntza komunitateko beste kide batzuen parte-hartzea eta elkarlana, bai eta beste erakunde eta organismo batzuena ere. Ikasgelaz haratagoko ikaskuntza (gehienez, 5 puntu).
- Autoebaluaziorako eta ebaluaziorako aurreikusita dauden irizpideak eta prozesuak (gehienez, 5 puntu).

## PROIEKTUAK AUKERATZEKO BATZORDEA

Proiektuak batzorde batek aukeratuko ditu. Hona batzordekideak:

- Jose Azpiroz, Iruñeko ILZko esparru artistiko/teknologikoko eta lan osasuneko aholkularia.
- Amaia Arriaga, arte hezkuntzan doktorea NUPen eta EDARTEko ikerketa taldeko kidea.
- Betisa San Millán, Uharte Zentroko zuzendaria.

## PROIEKTU IRABAZLEA

### 1. Sekuentziazioa

Proiektua elkarren artean tartekatutako lau denboraldiz osatuta egonen da:

**Hasierakoa:** Talde eragilea zehaztuko da, prozesua diseinatu eta haren jarraipena egiteaz arduratuko dena, bai eta bete beharreko agendaz ere. Ikastetxeko irakasleak izanen dira taldekide, eta Uharteko Zentroko hezitzaile bat ere bai. Taldea hilean behin edo bitan bilduko da.

**Garapena:** Talde eragileak erabakitako ekintzak ezarriko dira, prozesua dokumentatuta eta, behar izanez gero, kanpoko laguntzaileak ekarrita (artistak edo beste profesional batzuk).

**Ikusgarri egitea:** lana ikusgarri egiteko modua ezarriko da, itzulerako proposamen bat (ekarpena komunitatearentzat), eta proiektuari jarraipena emateko plan bat, kasua bada.

**Ebaluazioa:** Zuzeneko eta zeharkako ebaluazio-estrategiak ezarriko dira prozesuan zehar hartan ari diren eragile guztiekin.

### 2. Konpromisoak

Uharte Zentroak konpromiso hauek hartuko ditu:

- Proiektua garatzeko behar diren giza baliabideak bermatuko ditu. Horretarako, hezitzaile batek proiektu aukeratua lagundu eta aholkatuko du prozesu osoan, irakasleekin hilean behin bilerak eginez.
- Proiektuaren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du. Lan taldearekin batera, proiektuaren jarraipena eginen da, irakasleak prestatzeko lanak eginen ditu, saioak diseinatu, arte metodologien ekarpena, eta artistekiko nahiz beste profesional batzuekiko egin daitezkeen loturak.

- Aurrekontu bat ekarriko du proiektua garatzeko. Dirutza zehatz bat izanen da proiekturako; ez da inola ere izanen 3.000 eurotik gorakoa, eta ekoizpenerako izanen da.

- Jarraipen eta hedapen lana eginen du hedabideetan, bai eta Uharte Zentroaren sare sozialetan ere.

Proiektuaren arduradunek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Aurkeztu duten proiektua bete beharko dute.

- Lan talde bat edo taldekide arduradun batzuk izendatuko ditu proiektua bideragarria izan dadin.

- Hitzartzen diren lan saioak, egutegia eta ordutegia errespetatuko ditu.

- Eskolaren edo komunitatearen baliabideen ekarpena eskainiko du (oinarrizko materiala, eskolako espazioak, kontaktuak, sareak, etab.).

- Azken txostena prestatuko du, epea 2018ko irailean amaitzen delarik

**3. Proiektua argitaratzea eta haren zabalkundea egitea**

Uharte Zentroak proiektu aukeratu eta garatu hori argitaratzen ahalko du. Era berean, egokitzat jotzen den bitartekoa erabiliz hedatzen ahalko da, txostenaren egilea berariaz aipatuta.

Deialdian parte hartzeak berarekin dakar haren oinarriak onartzea eta behar diren eskubideak lagatzea edozein argitalpen mota egiteko.

# ESKOLA LURRALDEA

**Hezkuntza artistikoan**
**hezkuntza berritzeko proiektua**
**Deialdiaren oinarriak**
2018 / 2019

# 1. Eranskina

................................................................jaun/andreak, ……………………… ikastetxeko zuzendariak, aldeko txostena eman du ……….............. izeneko Proiektua “ESKOLA LURRALDEA” deialdian aurkeztu dadin. Hezkuntza artistikoan hezkuntza berritzeko proiektuetarako deialdia da 2018-2019rako, eta, zuzendariaren iritziz, proiektu hori lagungarria da Ikastetxeko hezkuntza jarduera hobetzeko.

....................(e)an, 2018ko …………. aren ….(e)an.

Ikastetxeko zuzendaria

Sin.: ...........................................



Finantziatua / Financiado por
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra